Zer eskaintzen zaie lehen hezkuntzako ikasleei	Zentroak eskola taldeen bisitak jasotzen ditu. Honen eginkizuna arroilen eta inguruko lurraldearen balio naturalak ezagutarazi eta zabaltzea da: eraketa, geologia, landaredia, fauna ... Arroilak Agoitz-Ilunberri Pirineoaurreko arroan kokatuta daude eta zentroan ere eskualdeko historia, kultura eta lurraldearen erabilera aurkezten dira. Horretarako hainbat baliabide didaktiko ditu: erakusketa aretoa, lurraldeko maketa, horma irudiak, ikus-entzunezkoak ... Aipatzekoak dira arroilen eraketa geologikoari buruzko dokumentala eta sai arrearen irudi bilduma, azkeneko hau Ilunberriko arroilan kokaturiko bideo-kamera batekin grabatua.

Indar-guneak / Ahulguneak	<p>Indar-guneak: Bi programen artean aukeratzeko aukera eskaini, bisitak doan izatea, ingurumenak dituen baliabide naturalak (ibaia, harriak, animaliak)</p> <p>Ahulguneak: Zentroa arroiletatik urrun dago.</p>
Landu daitezken eduki espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Arroileko ekosisteman animalien habitata (hegaztien eta arrainen bereziki) ▪ Irati ibaia ▪ Arroilan bizitzen duten hegaztiak: Sai arrea, sai zuria, harkaitz zozo urdina ... ▪ Kareharizko eraketak ▪ Arroilen ingurumeneko landaretza
Irudiak	Ikusi eranskinak 5

3. Taula : Bertiz-eko basoa

Non dago	Bertizarana izeneko bailaran, konkretuki, Oronoz Mugairiko herrian kokatzen da Bertiz basoa.
Historia	<p>"Bertizko Jaurerria" finka pribatua izan da mendez mende. Hori dela eta, ez da neurrigabe ustiatu, inguruko lurralteetan gertatu den bezala.</p> <p>1949an, Pedro Ziga jaunak Bertizko Jaurerria testamentu bidez Foru Diputazioari utzi zion oinordetzan eta baldintza ere ezarri zuen: jaurerria bere hartan mantendu behar zutela, ezaugarriak aldatu gabe. Horri loturik, Nafarroako Gobernuak Natur Parke deklaratu zuen Bertiz 1984an, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuak proposaturik. Departamentu hori arduratu zen Parkea kudeatzeaz eta, gaur egun, Ingurumen, Lurraltearen Antolamendu eta Etxebitzitza Departamentua da arduraduna.</p>
Zer aurki dezakete bisitariek	<p>Bertizko Jaurerriko landaredia atlantiko aldeko oihan hostogalkorrari dagokio. Hainbat landaredi-eraketa daude, oro har ongi kontserbatuak.</p> <p>Natur parke honetako oihanek badute berezkotasun maila handia. Pagadia da nagusi, baina giroa zein den, hariztia ageri da haren ordez, ametz-basoarekin batera. Erreka bazterrean, hultzadiak daude. Honetaz aparte espezie anitzeko animaliak eta landareak aurki daitezke bai eta lorategi botaniko bat. Bestetik Bertizko naturaren interpretazio zentroaren gai ardatza basoa eta bertan bizitzen diren animali eta landareak dira. Modu honetan bisitariei eremu hau ezagutzeko ezinbesteko eskaintza ematen zaie.</p>

Zer eskaintzen zaie lehen hezkuntzako ikasleei	Bertako monitoreak sortutako “Programa de educación ambiental” dokumentuan ikasleekin egiten diren programa eta jarduera guztien jarraibideak biltzen dira. Basoaren ezagutza oinarria daukaten jarduerak nagusitzen dira Bertzen. (Landaredia, animaliak, zuhaitz hilen garrantzia ...) Programak eta bisitak adinaren arabera moldatzen dira.
Indar-guneak / Ahulguneak	Indar-guneak: Bisitak doan dira, Jarduera eta programa anitzak eta oso ongi antolatuak eta egokituak, eremu paregabea, monitoreen prestakuntza. Ahulguneak: Bertiz parkearen eskaintza ezagutarazteko modua.
Landu daitezken eduki espezifikoak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Baso atlantikoko landaredia, bereziki, pagoa ▪ Lorategi botanikoa ▪ Hosto erorkorra eta iraunkorreko konparaketa ▪ Oihaneko animaliak: basurdeak, oreinak, hegaztiak ... ▪ Inguruneko herrien historia.
Irudiak	Ikusi eranskinak 6

4. Taula : ikasleentzako eskaintzaren konparaketa eta eremu bakoitzeko eduki espezifikoak.

Orgiko basoa	Orgi basoaren barrenean ibilaldia egiteko aukera. Ibilaldiaren helburua, hain zuzen, oihanean garatzen diren harremanen ezagutza sakontzea da ikerketa, behaketa eta interpretazioa erabilita.
Ilunberriko arroila	<p>1. bisita mota. <i>Interpretazio Zentroan</i>. Iraupena: 1:15 ordu. Hona lantzen diren edukiak: Kareharriaren eta arroilen eraketa, arroilen garrantzia: natur- gune babestuak. Harkaitzetako hegaztiak, oro har. Zehazki, sai arrearen ohiturak eta ezaugarriak. Gizakiaren eraginez arroan sortu den paisaia, arroiletako harkaitzakin alderatuta.</p> <p>2. bisita mota. <i>Interpretazio Zentroa eta Ilunberriko Arroila</i>. Iraupena: 3:30 ordu. Zentroan lantzen dira 1. bisita motan azaldutako edukiak. Arroilan gai hauek lantzen dira: Arroila, natur- gune babestua, Erreserba Naturala. Nafarroa mediterranearraren landaredia, gizakiak eraldatutako paisaia eta berezko paisaia. Irati trena. Hegazti eta habien behaketa teleskopio eta prismaticoekin</p>
Bertiz-eko basoa	<ul style="list-style-type: none"> • 2h ekitaldia: Ibilaldia bat basoan zehar, basoaren inguruko gaiak jorratzen dituen jarduerak eta jolasak eginez. Baseria, txondorra, animaliak ... lantzen dira. Edukiak adinaren arabera moldatzetan dira • Udazkena eta udaberriaren programa • 4h ekitaldia: baso mintegia eta lorategi botanikoa ikusten da. Bertan inguruko baso motak lantzen dira. • Baso kudeaketari buruzko bisita zentroa bisitatuz. Ekitaldiaren erdia zentroaren barruan eta beste erdia basoan.

4.2 Elkarrizketetik eskuratutako informazioa

Jarraian, interpretazio zentroen monitoreekin eta Ignazio Juanbeltzkin izandako elkarrizketatik eskuratutako informazio nabarmengarriena aurkezten da. Modu honetan hiru monitoreekin ateratako gai berdinak sailkatu egin dira eta modu ikusgarri batean aurkeztu dira. Bestetik, Ignazio Juanbeltz, jadanik erretiratu den irakasle, idazle margolari eta naturaren adituarekin izandako elkarrizketatik eskuratutako gai garrantzitsuenak bildu dira baita ere.

Interpretazio zentroko monitoreekin izandako elkarrizketatik eskuratutako informazioa honako sailkapenaren arabera kategorizatu egin da:

- a) Eskolen bisitak: zeintzuk, noiz, zergatik.
- b) Ateraldiaren metodologia eskolan (Eskolako irakasleen lan-metodoa ateraldiei aurre egiteko).
- c) Ikasle ateraldiei dagokion irakasleen implikazioa eta interesa.
- d) Zentroaren lan metodologia
- e) Bisiten etekina
- f) Ikasleen jarrera

Ignazio Juanbeltzkin egindako kategorizazioa desberdina izan da elkarrizketetan gai desberdinak jorratu direlakoz. Kasu honetan eskuratutako informazio gaztelaniaz aurkeztuko da lortutako informazioaren esanahia ez aldatzearen.

- Salidas de trabajo o excusiones de ocio.
- La importancia de la formación del profesorado.
- Las primeras salidas escolares al campo.
- Quien fomentaba la dinámica de salidas de trabajo en la escuela.
- Beneficios de la realización de salidas de trabajo
- Como solventar los problemas económicos
- Planteamiento de escuela.

Transkribatutako elkarrizketa osoak eranskinetan aurki daitezke. (ikusi 2. Eranskina)

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Injurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

4.2.1 interpretazio zentroetako informazio nabargarriena

- a) Zer esaten dute eskola bisiten inguruan

Orgi (Conchi):

“El de Larrainzar, por ejemplo, viene muy poco. Nos gustaría trabajar mucho con ellos pero creo que eso depende del profesorado, algún año si que hacíamos cosas, pero últimamente poco. Por ejemplo con una profesora que estaba antes si que hacíamos cosas pero yo creo que los de ahora prefieren la comodidad del libro.”

Bertiz (Mónica eta Iosune):

“Parkeak eskola bisitak eta ekitaldiak duela urte asko antolatzen ditu eta oso onartuak daude. Badire Iruña edo Gipuzkoatik urtero etortzen diren eskola eta horrela daramate 20 urte. Zonaldekoak, aldiz, ez dira hainbeste etortzen. Aurten adibidez, irailean KAP-era joan ginen parkea eskaintzen duena bertan erakustera. Horregatik aurten haur hezkuntzako zonaldeko eskolak bai apuntatu direla.”

“Gertatu zen KAP- era joan ginenean eta gure parkea aurkezterakoan irakasle asko ezagutzen zutela Bertiz baina ez zekitela ze eskaintza zegoen. Gainera doanik da taldeei egiten zaien bisita.”

“Gauza da zein den eskolara eta irakasleei iristeko bide onena. Lehen adibidez bidaltzen zen eskoletara zentroak zer eskaintzen zuen eta egunkarietan agertzen zen baita ere. Baina gero hitz egiten duzu irakasle askorekin eta ez dakite zer dagoen. Niretzat hor dago koxka. Agian KAP-eko irakaslek bildu beharko ziren eta zentro hauetara bisita txiki bat egitea, 20 minutukoa edo ola, ikusteko zer dagoen.”

Ilunberri (Nahia):

“Kanpokoekin bisita tipoak egiten ditugu. Hemengo eskolekin, aldiz, programa trinko bat dugu. Arangoiti ikastola eta Donibane eskolarekin, lehen hezkuntzakoak direnak biak. Haien lantzen dutenaren arabera hainbat tailer antolatu ditugu. Orduan egiten zitzaiena izaten zen kurtso hasieran kurtso osorako gai bat proposatu, adibidez, urte batean landu zuten basoen garrantzia edo ibaia, orduan guk antolatzen ditugu gauzak gai horren inguruan, beti ere naturarekin erlazionatuak.”

- b) Zer esaten eskolan lantzen den ateraldien metodologiaren inguruan

Orgi (Conchi):

“Yo creo que les sacan provecho. Mucho depende también de lo que hayan trabajado en clase.”

Bertiz (Mónica eta Iosune):

“Irakasle batzuk eskolan bai lantzen dute, gutxienez esaten diegu zerbaite lantzea: Nolako den parkea, nola etorri behar diren jantzita ... Hala ere nabaritzen da nortuk lantzen dute eta nortzuk ez.”

“Gero gu ez dugu egiten segimendurik. Bakarrik bisita egin aurretik kontaktuan jartzen gara azaltzeko pixka bat gainetik nolako izango den.”

Ilunberri (Nahia):

“Hemengo eskolakoek ebaluaketa orriean esaten dute oso pozik daudela, ikasleek eskatzen dute egun gehiago lan egitea, egunerokotasunik ateratzea gustatzen zaie eta ilusio handiarekin hartzen dute tailer hauek.”

“Eskolek interneten bidez egiten dituzte bisitaren erreserba, askotan bahiz eta ez eskatu guk bidaltzen diegu klasean lantzeko fitxa batzuk. Gauza da sumatzen dela berehala nortzuk landu duten zerbaite klasean eta nortzuk ez duten ezer landu.”

- c) Zer esaten dute ateraldiei dagokion irakasleen implikazioa eta interesaren inguruan

Orgi (Conchi):

“Hay algunos coles que trabajan mucho el tema naturaleza y otros que menos.”

Bertiz (Mónica eta Iosune):

“Badira irakasle batzuk sistematiko dutela hona urtero etortzea. Normalean hau antolatzen duten irakasleak natura, biología, geología gustukoak duten irakasleak izaten dira.”

Ilunberri (Nahia):

“Konturatzen zara hemengo irakasleak, nirekin ikasitakoak, beraiekin hitz egiten, pentsatzen dutela adibidez ordaindu behar dela. Eta ez. Ez dakizu ba irakasle hauek ez direla etortzen ez direlako enteratzen edo interesatzen ez zaielako.”

- d) Zer esaten dute zentroaren lan metodologíaren inguruan

Orgi (Conchi):

“Te voy a contar en qué consiste una visita para niños de entre 8 y 10 años. Más o menos es parecido. Les explicamos porque se le llama robledal de orgi. A partir de los 8 años ya distinguen los árboles y les explicamos que hay dos tipos, el roble americano y el roble del país. Ellos ven la diferencia entre unos y otros. Luego para que ellos sientan, tocamos un roble americano, si están las bellotas les hacemos tocar y cogerlas y luego cuando nos metemos al bosque vemos la diferencia entre los dos gracias al tacto y a la experimentación.

A continuación hacemos el recorrido por Orgi parando en los puntos de interés. La zona del laberinto, donde está adaptada para personas ciegas y les preguntamos: ¿Cómo pueden andar las personas ciegas? De este modo trabajamos los sentidos, les ponemos un antifaz y agarrados a una cuerda tienen que llegar hasta un árbol. También trabajamos el oído y la escucha.

En el punto 2 del circuito está el roble caído. Aquí aprovechamos para hablarles de la importancia de los árboles. En el 3, hay un roble muy grande, que tiene más de 200 años. Aquí coges a tres o cuatro niños y dados de la mano abrazan al roble. Así ven lo grandes que son los arboles antiguos. En el 4 está el atajo, donde les explicas que es un atajo relacionándolo con el cuento de caperucita. En el numero 6 hay un pino que nos sirve para hacer las diferencias entre arboles de hoja caduca y hoja perenne”

Bertiz (Mónica eta losune):

“Zentroa berez bisiari guztientzat da, baina haur txikiekin, adibidez, haur hezkuntzakoekin ez zaie hainbeste zentroan murgiltzen eta bakarrik lorategia erakusten zaie.

Honen inguruan monitoreak jakin behar du talde bakoitzari, segun eta nolakoa den, informazioa forma batean edo bestean ematen nahiz eta edukiak berdinak izan. Baita ere desberdina da hirietatik eskola bat edo zonaldeko eskola bat etortzen bada. Hemengoak, adibidez, jakingo dute nolako den hemengo basoa, Tuterakoak adibidez ez. Horregatik informazioa hautatu egin behar da. Ematen duzun informazioa ikasleek dakitenaren arabera moldatu behar da.

Ekitaldi desberdinak daude adinaren arabera egitekoak, hala ere hauen hautaketa geratzen da monitorearen arabera. Monitoreak egokitzen du bisitaldia etortzen diren ikasleen arabera. Horregatik monitoreak errekurso asko izan behar ditu eta ikasle taldeari egokitu. Monitoreak bost minuti lehenago biltzen dira materiala aukeratzeko eta landuko diren jokuak aukeratzeko. Bukatzerakoan baita ere biltzen dira bisitaldiaren inguruan hitz egiteko. Irakasleei ere satisfakzio inkestak ematen dizkiegu.

Egia da markatuta daudela helburu batzuk bisitaldian betetzeko, baina hauek lortzeko eta lantzeko moduan monitorearen esku geratzen da.”

Ilunberri (Nahia):

“Alde batetik programa edo proiektu desberdinak lantzen ditugu, adibidez hemengo eskolarekin edo kanpotik etortzen direnekin.

Kanpotik etortzen direnekin badugu arauturiko bisita bat zentroan eta arroilan. Garrantzia ematen zaio erreserba naturala den aldetik arroilak duen garrantziari, bertako loreak, aspektu geologikoak etab. baina batez ere animaliak, eta hauetan hegaztiak dute nagusitasun gehiena. Harrapariak dira nagusienak eta gu zentratzen gara asko sai arrean nahiez eta hegazti gehiago egon.”

“Hemen, zentroan, lehenengo arroilen eraketa azaltzen zaie, zergatik sortu diren arroilak, nola, zergatik sortzen diren hainbeste hemen etab.

Bestetik hegaztiak lantzen ditugu, ze ezaugarriak dituzten, elikaduraren aldetik dituzten ezaugarriak eta ikus entzunekoekin sai arrea eta geologiaren inguruko edukiak lantzen ditugu. Erabiltzen ditugu Ilunberriko arroilan egon den kamara baten irudiak.”

- e) Zer esaten dute bisiten etekinaren inguruan

Orgi (Conchi):

“Yo creo que si les sacan provecho”.

“Hay algunos alumnos que vienen ya sabiendo que es un roble una bellota y tal... Pero yo creo que sí, que siempre se les queda algo.”

Bertiz (Mónica eta Iosune):

“Ikasleek azkenean pozik joaten dira, ingurua oso atsegina da eta beti ikasten dute zerbait.”

Ilunberri (Nahia):

“Nabaritzen da desberdintasun handia hemengoak eta kanpokoak artean, hemengoekin azkenean gertutasuna da. Talde txikiagoak dira ... Errazago dute.”

f) Zer esaten dute ikasleen jarreraren inguruan:

Orgi (Conchi):

“Muy bien, en general muy bien, hay de todo. Pero es muy importante como el monitor consigue ganárselos.”

Bertiz (Mónica eta Iosune):

“Oso pozik ateratzen dira hemendik”

Ilunberri (Nahia):

“Oso ona. Hemengoak ilusio handiz hartzen dituzte tailer hauek”

4.2.2 Jose Ignacio Juanbeltzen erantzun nabargarrienak.

- Salidas de trabajo o excusiones de ocio:

“A mí me gusta llamar salidas de trabajo. ¿Por qué? Pues porque lo que yo quería era hacerles trabajar a los alumnos. “

- Importancia de la formación del profesorado.

“Por entonces (refiriéndose a su época joven) los maestros nos íbamos los sábado a hacer excursiones a aprender por nuestra cuenta, sin ayudas de nadie.”

“Yo me forme con ADARRA, que era un grupo de aquí de Bilbao, y nos formábamos sobre paisajes, sobre naturaleza para luego poder impartirlas en las aulas.”

“Pero claro, todo esto (la realización de salidas a la naturaleza de calidad) depende de la formación del profesor. De dos tipos. Una conceptual: no puede haber errores conceptuales por lo tanto tienes que tener una base científica importante y dos, debes saber adecuar tus conocimientos a la edad de los alumnos.”

“Yo he dado charlas en la universidad, en centros de formación de profesores relacionados con el medio ambiente en el CNA de Segovia, a monitores de parques naturales para oposiciones a profesores sobre educación medioambiental y no tienen ni idea. Salen de las universidades descolocados totalmente.”

“Aun así no basta con cambiar la carrera de magisterio porque como te he dicho la salida tiene que estar integrada en el currículum, y en relación con esto las guías didácticas y los libros de texto tiene que fomentar también la realización de las salidas.

Por ejemplo, Anaya o SM al hacer los libros tiene en cuenta el currículum, crean los ejercicios o las unidades didácticas y las envían al profesor. En el mejor de los casos crean una guía para el profesorado sobre cómo llevar a cabo estos ejercicios, que, siendo realistas solo el 5% de los profesores se lo mira. ¿Por qué? Pues porque un profesor que ya lleva diez años trabajando dice: ¡A mí me van a venir ahora a decir como tengo que trabajar este tema!”

- Pionero en realizar salidas de trabajo.

La verdad es que en el colegio Los sauces de Barañain fuimos un poco los pioneros en este tema de fomentar las salidas. Realizamos, me acuerdo, la primera reunión de naturaleza y escuela a la que vinieron expertos como el italiano Frabboni por ejemplo.

- Quien fomentaba la dinámica de salidas de trabajo en la escuela.

“Hombre, yo me encontré que estuve de jefe de estudios y director desde el año 96 y me encargué un poco de que la escuela no decayera y de que uno de los pilares educativos del centro fuera precisamente fomentar la realización de salidas de trabajo a la naturaleza.”

“Estando yo de director esa era una de las señas de identidad del centro. Si en infantil se tenía que ir al museo de Oteiza ¡Pues van al museo de Oteiza! O yo que sé a conocer el entorno más cercano a mi escuela, el parque de Barañain por ejemplo. Todo eso se fomentaba.”

“Yo como director era el que decía: un momento aquí no hay más que una salida de trabajo, ¿Por qué no hay más de dos? Segundo, estos no es una salida de trabajo, es una excursión de convivencia. Y yo iba haciendo esa diferenciación.”

“¡Cómo voy a estar aquí en clase explicando en una pizarra pudiendo verlo en la realidad!”

- Beneficios de la realización de salidas de trabajo

“Joaquin Ferrer y Odom Lebon, que investigaron mucho sobre esto decían lo siguiente: Si a un alumno le llevas al rio al monte o al mar, le recordamos lo que ha visto trabajándolo durante varios días y tal, estará en disposición, no solamente de entender mejor lo que ha visto, sino en disposición de entender mejor otro tipo de abstracciones que van a venir después.”

“Esto era un poco también mi teoría, si a los chavales les enseñamos a observar, a crearles problemas en el propio espacio donde estamos (por qué hay una borda en el monte, por qué vivirían aquí, por qué ya no, por qué está al lado del rio, era nómada o sedentario...) al final conseguías que razonaran, hacerlos más críticos para crear la base para que en un futuro pudieran entender mejor otras abstracción relaciones, por ejemplo, con la historia.”

“Todos estos razonamientos lograban que los chavales tuvieran una autonomía tremenda. Eso si el trabajo del profesor es muchísimo más complejo.”

“Mis alumnos sabían latín, no es que sepan lo que salía en los libros, sino que sabían mucho más. Además a los chavales la dinámica les gusta, los alumnos trabajaban pero también se divertían porque dentro de las actividades también había juegos de distención.

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

Y los alumnos como estaban muy motivados con la dinámica de realizar salidas ya te traían cosas antes de realizarlas. Te traían fotos y cosas y así podías trabajar conceptos antes de acudir a los lugares que íbamos a visitar."

- Como solventar los problemas económicos

"Aquellas familias que no podían sufragarlas recibían ayuda por parte del centro. En el momento en que empezó a haber más inmigrantes eché mano de la asociación de padres, entonces calladamente, conseguí la involucración de los padres para mantener una educación de calidad, que al final era lo que todos los padres querían.

Para ello a los padres había que explicarles cómo iba a ser tu proyecto curricular, como ibas a tratar, que ibas a evaluar etc etc. Pero sobre todo como implicar a los padres en la educación, sobre todo en la de los pequeñitos. Por eso si los padres estaban concienciados ayudan y, por tanto, pagaban."

- Planteamiento de escuela

"Siempre he tenido un principio: Plantear en las escuelas un proyecto *formativo* que tenga dos componentes importantes:

El *instructivo*, en el que sois los protagonistas los maestros. Tenéis que convencer a los padres que os dejen actuar ahí. La instrucción que son conceptos, técnicas de estudio, técnicas de trabajo, cálculo mental, la lectura comprensiva... Es ahí donde tenéis que convencerles para que os dejen trabajar y donde ellos no tienen que incidir.

El *educativo*. En el que tienen más peso los padres. La convivencia, fortalecer el trabajo de equipo, normas de comportamiento (como coger una cuchara, como comportarse en las villavesas). Yo les decía a los padres que tienen que venir desde casa ya sabiendo todas estas cosas. Pero para esto hace falta la involucración de los padres. Para ello desde principio de curso les explicaba cómo iba a ser el proyecto educativo y como se iba a trabajar en las diferentes áreas."

4.2.3 Eztabaida

Lau elkarrizketa hauetatik eztabaida gai asko sortzen dira. Laurak natur eremuetara irteera egitearen onurak azpimarratzen dituzte baina, aitortzen da, irteera hauek egitearen ekimena naturan adituak edo interesatuak dauden irakasleen esku geratzen direla. Honen adibidea Ignacio Juanbeltz da. Ikus daiteke nola, irakasle izanda, ahal zuen momentu orotan landa eremuetara irteerak antolatzen zituen eta, ondoren, ikastetxeko zuzendari gisa, lan irteera egitearen defendatzairel bezala, ikastetxeari identitate hori eman zion. Irteerak ia derrigorrezkoak bihurtutako ikastetxe bat kudeatu zuen.

Halaber, esan den moduan, ikasleentzat benetan probetxugarriak diren kalitatezko irteerak antolatzeko irakasleen formakuntza ezinbestekoa da. Joan aurretik klasean nola landu (ikus daiteke, natur interpretazio zentroko monitoreen hitzetan nola oso irakasle gutxi lantzen dutela joan aurretik), zein helburuekin diseinatu, nola txertatu klaseetan, zein eremu dira egokiagoak gai bat edo beste bat lantzeko, nola motibatu haurrak etab. Guzti hau ongi bermatzeko oso irakasle formatuak eta interesatuak behar dira hezkuntza sisteman lan egiten.

Bestetik, ikasleen jarrera eta motibazioa irteerak egiterako orduan ikaragarri altua da. Icasleek ordu asko pasatzen dituzte ikasgeletan, eserita, liburu bateko ariketak egiten, horregatik, irteera hauek ilusio handiarekin hartzen dituzte. Adibide bezala Ilunberriko arroiletan zonaldeko eskolarekin egiten duten programa hartu daiteke. Bertako haurrak tailerrak eta irteerak egiteko esperoan daude, benetan ongi pasatzen dutelako eta, ageria geratzen den bezala, askoz gehiago ikasten dutelako naturarekin erlazioak eta elkarreaginean klasean eserita egoten baino. Bertiz eta Orgiko monitoreak iritzi berdinekoak dira. Izaten dituzten haurren interesa eta ongi pasatzeko nahia konpara ezina dela diote, eta gainera, monitoreak bisitak gidatzeko eta klasearen ezaugarrietara moldatzeko estrategiak eta abilidadeak goraipatzen dituzte.

Hau da, hain zuzen, natur eremura lan irteerak egiteko arrazoi nagusiena. Icasleek naturan jolasten, jarduerak egiten, esperimentatzen eta fenomenoak behatzen Natur Inguruneko arloan ematen diren edukiak hobeto ulertzen dituzte.

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

Ilunberriko monitoreak adierazten du, hegaztien inguruan, ikasleak bera baino gehiago dakitela eta Ignacio Juanbeltz lan irteeren alde agertzen da ikusten zuelakoz ikasleek benetan ikasten zutela praktika hauekin:

- *Mis alumnos sabían latín, no es que sepan lo que salía en los libros, sino que sabían mucho más. /*
- *Cómo voy a estar aquí en clase explicando en una pizarra pudiendo verlo en la realidad. /*
- *Si a los chavales les enseñamos a observar, a crearles problemas en el propio espacio donde estamos... al final conseguías que razonaran, hacerlos más críticos para crear la base para que en un futuro pudieran entender mejor otras abstracciones relacionadas, por ejemplo, con la historia.*

Elkarrizketetatik hartutako esaldi hauek lan irteeren onuren adierazle bikainak dira. Ikusten da nola berrogei urtetan zehar ikasleekin lan egin duen irakasle baten iritzian natur eremuekin erlazionaturiko ariketak eta jarduerak proposatuz ikasleek pentsamendu kritikoagoa eta autonomoagoak izaten ikasten dutela.

4.3 Natur interpretazio zentroak eskaintako eduki eta curriculumak ezarritako edukien arteko alderaketa

Elkarrizketetatik eskuratutako ideia bat izan da, oro har, irakasleek ez dakitela natur interpretazio zentroetan, lehen hezkuntzako ikasleei begira, aurki daiteken eskaintza. Beraz, jarraian, curriculumak ezartzen dituen ziklo bakoitzean landu behar diren edukiak natur eremu bakoitzeko eskaintzarekin konparatuko da. Modu honetan agerian geratzen irakasleek ikasgelan lantzen ari diren gaia, edukia edo unitatea zein eremu naturalean landu dezaketen. Taula sortzeko kontuan izan da zentro bakoitzak eskaintzen duen programen edukiak.

Hurrengo taula eratzeko martxoaren 19ko 24/2007 foru dekretuak onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko lehen hezkuntzako irakaskuntzetarako ezarritako Curriculuma kontuan hartzen da. Ikerketaren gaiarekin lotura izateko Natura, Gizarte, eta Kultur ingurunearen ezagutza arloan ezartzen diren edukiak azaltzen dira.

5.Taula: Lehen zikloko edukiak

<i>Curriculumeko edukiak</i>	<i>Non landu</i>
<p>1.multzoa. Injurunea eta ingurune hori zaintzea Injurune fisikoaren oinarrizko elementuak: airea eta ura. Ureko edo lurreko ekosistema zehatzen bat behatu, aztertu eta horri buruzko lan errazak egiten hastea. Injuruneko elementu natural eta gizatiar batzuk behatu eta hautematea.</p>	Ilunberriko arroiletan
<p>2. multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna Era askotako bizitza moduak behatzea. Izaki bizidunen eta objektu bizigabeen arteko desberdintasunak identifikatzea. Animaliak eta landareak zuzenean eta zeharka behatzea. Elementu behagarrien araberako sailkapena, identifikazioa eta izena ematea. Landareen eta animalien ezaugarri fisikoak eta jokabideak beren inguruneekin lotzea (kamuflajea, kolorea eta ilearen loditasuna aldatzea, etab.) Gizakien, landareen eta animalien arteko erlazioak. Izaki bizidunak zaindu eta errespetatzeko ohiturak garatzea. Egindako esperientziak ahoz azaltzea, irudien eta testu idatzi laburren laguntzarekin.</p>	Ilunberri, Orgi edo Bertizeko programetan eduki hauek lantzen dira.

<p>5.multzoa. Aldaketak denboran zehar</p> <p>Denboraren oinarrizko nozioak (lehen-gero, iragana-oraina-geroa, iraupena), neurketa unitateak (eguna, astea, hilabetea, urtea) erabiltzea.</p> <p>Iraganeko eta oraingo gertaera batzuk eta beren esperientziatik hurbil dauden alderdi historiko batzuekin erlazionatzea.</p>	<p>Ilunberri, Orgi eta Bertiz. Leku bakoitzean eremuaren ezaugarrien arabera landu (Basoa edo arroilak)</p>
<p>8.Multzoa. Nafarroako Foru Komunitatea:</p> <p>Nafarroako natur parkeak: Bertizko jaurerria, Urbasa-Andia mendilerroa eta Errege Bardea.</p>	<p>Bertiz</p>

6.Taula: Bigarren zikloko edukiak

<i>Curriculumeko edukiak</i>	<i>Non landu</i>
<p>1.Multzoa. Ingurunea eta ingurune hori zaintza</p> <p>Harkaitzen identifikazioa eta oinarrizko sailkapena.</p> <p>Paisaia mota ezberdinak behatu eta deskribatzea: naturaren eta gizakien arteko elkarreragina.</p>	<p>Ilunberriko arroiletan</p>
<p>2.Multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna</p> <p>Modu aktiboan jokatzea landareen eta animalien kontserbazioan eta zainketan.</p> <p>Izaki bizidunak zuzenean behatzea, tresna egokiekin eta ikus-entzunezko baliabideekin eta baliabide teknologikoekin.</p>	<p>Ilunberri, Orgi eta Bertizen</p>

<p>3.multzoa. Osasuna eta garapen pertsonala Zentzumenak, beren zeregina deskribatzea eta ohikotasunez zaintzearen garrantzia. Beste gizaki batzuekin eta munduarekin harremanak izatea.</p>	<p>Bertiz eta Orgin honen inguruko jarduerak egiten dituzte.</p>
<p>5.Multzoa. Materia eta energia Objektuak mugiarazten edo deformarazten dituzten indar ezagunak identifikatzea. Erakarpen edo aldarapen indarrak.</p>	<p>Ilunberrin</p>
<p>8.Multzoa. Nafarroako Foru Komunitatea Nafarroako anitzasun geografikoaren elementu garrantzitsuenak: erliebea, klima, landaredia eta ibaiak. Nafarroako eremu geografikoetan ohikoenak diren animalia eta landareak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Ugaztunak: orkatzak, oreinak, muxar grisa eta marmota. Gutxiago ageri diren animaliak (hartz arrea, basakatua, azeria, basurdea, etab.) ▪ Hegaztiak (ugatza, basoilarra, <i>saia</i>, arrano beltza, miru gorria, koartza hauskara, basahatea, amiamokoa, galeperra, pagausoa, hegatxabala, etab.) ▪ Landaredia: pinua, pagoa, haritza, artea, makala, etab 	<p>Ugaztunak eta landaredia: Orgi eta Bertzen</p> <p>Hegaztiak: Orgi eta Ilunberrin (espezifikoki sai arrea)</p>

7.Taula: hirugarren zikloko edukiak

<i>Curriculumeko edukiak</i>	<i>Non landu</i>
<p>1.multzoa. Ingurunea eta ingurune hori zaintza Eremu ezagunak hautematea eta eskalan irudikatzea. Eremu berari buruzko irudikapen mota desberdinak erabili eta interpretatzea (planoak, airetik hartutako argazkiak, krokisak eta beste baliabide teknologiko batzuk). Bakoitza bizi den tokiko klimaren eta klima nagusien ezaugarriak. Paisaian eta gizakien jardueran duen eragina.</p>	Ilunberriko arroiletan mapa eta planoekin jarduerak egiten dituzte.
<p>2.Multzoa. Izaki bizidunen aniztasuna Landareen egitura eta fisiologia. Animaliak eta landareak identifikatzeko gako eta gidak erabiltzea. Izaki bizidunen bizitzari lotutako prozesuren bat behatu eta erregistratzea. Emaitzak ahoz eta idatziz jakinaraztea.</p>	Bertiz eta Orgin
<p>8.Multzoa. Nafarroako Foru Komunitatea Nafarroako eremu geografikoak eta beren arteko desberdintasunak (klima, erliebea, ibaiak eta landaredia)</p>	Ilunberri, Orgi eta Bertiz

Deigarria da hiru eremu natural hauetako interpretazio zentroetan curriculumak ezartzen dituen hirugarren ziklorako edukiak lantzeko eskaintzen diren programak motz geratzen direla. Taulan ikus daiteken moduan, lotura gehiago

agertzen dira lehen eta bigarren ziklorako ezartzen diren eduki eta zentroen arteko programen artean hirugarren ziklorako ezartzen diren edukiekin baino.

Nahiz eta zentro hauetan ziklo bakoitzerako egiten diren jarduerak moldatuak eta egokituak dituzten, curriculumak ezartzen dituen edukien maila desberdina da. Adibide bat jarriz, hirugarren zikloan europar batasuneko lurrealdeak, materiaren eraldaketa, zenbait erreakzio kimiko, birziklapena eta materialen erabilera, onddoak, bakterioak mikroorganismoak etab lantzen dira. Eduki konkretu hauek lantzeko, beraz, beste ingurumen natural edota zentro espezifikoak bisitatzeko lan irteerak antolatu beharko lirateke hirugarren zikloko ikasleekin.

4.4 Zentroen bisiten analisia


4.4.1 Azken urteetako bisitari kopurua

Jarraian natur interpretazio zentroak eta errepresentatzen duten eremu naturalen azkeneko bost urteetako ikasle kopuruen datuak aurkezten dira. Datu guzti hauek eskuratzeko zentro bakoitzeko arduradunen baimena eskatu da, hain zuzen, arduradun hauek izan dira datuak ikerketaren esku jarri dutenak. Modu honetan llunberri, Bertiz eta Orgiko datuak aurkeztu eginen dira. Orgi eta Bertizko datuak urteka adierazten dira eta llunberrikoak ikasturteka.




2.Irudia: Orgi basoa bisitatu duten ikasle kopurua 2009 – 2013 bitartean

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela



3.Irudia: Orgi basoa bisitatu duten ikasle kopurua 2009 – 2013 bitartean



4.Irudia: Ilunberriko interpretazio zentroa bisitatu duten ikasleen kopuruak

Hiru grafiko hauetan ikusten den moduan, 2013. Urtean azken bost urteetako bisitari kopuru txikiena ikusten da. Orgiren kasuan beherakada hau nabariagoa da azkeneko bi urteetan (2012 eta 2013). Ikus daiteke nola 2011. Urtean eskola bisitarien gorakada handia izan zela, baina hortik aurrera, beherakada etengabea sumatzen da.


Bertzen, aldiz, azkeneko lau urtetako bisitarien murrizketa oso ikusgarria da. 2010. Urtetik hona, urtero 1000 bisitari inguru galdu egin ditu. Ilunberri dagokionez, 2009 eta 2012 urte bitartean bisitarien gorakada ikusten da, nahiz eta hau oso txiki izan, urtero konstante mantendu dela ikus daiteke. Dena den, deigarria da azkeneko ikasturtean jasan duen beherakada. Ikasturte batetik bestera 2000 bisitari inguru galdu egin ditu.

Beherakada honen arrazoiak zehaztea oso zaila da. Beharbada, egun dagoen krisi ekonomikoarekin loturak egin daitezke. Hezkuntzan egiten diren murrizketak zuen zuzenean jotzen dute, hain zuen, eremu natural hauetara irteerak antolatzeko planifikazio eta aurrekontuekin. Irakasleak denbora behar dute lan irteera bat antolatzeko (klasean nola landu, nola bideratu irteerak, zein eremua egokitzen den gelan lantzen ari den edukiei ...) eta eskolan gero eta planifikatzeko denbora gutxiago uzten zaie. Bestetik eskolen aurrekontuak gero eta estuagoak dira eta, Bertiz edo Orgi bisitatzeako alokatu behar den autobusa ordaintzeko larri egon daitezke.


Beste aldetik azken urteetan naturarekin erlazionaturiko edukietan dagoen interes faltarekin erlaziona daiteke baita ere. Dena den, emandako arrazoi hauek hipotesiak dira. Ez dago zehazturik beherakadaren arrazoiak irizpide hauen ondorioa direnik. Modu batez edo bestez argi dagoen gauza bakarra da eremu natural hauek bisitari gutxiago jasotzen dituztela eta hau konpondu beharreko zerbaite dela uste dut.

4.4.2 Ikastetxe publiko eta ikastola kontzertatuen arteko konparaketa


Alderdi ekonomikoarekin egin nahi den loturarekin jarraituz, natur interpretazio zentroa hauek bisitatzen dituzten ikastetxe publiko eta ikastola kontzertatuen arteko konparaketa egin da. Kontuan izan behar da Ilunberri eta Bertzen antolatzen diren bisitak dohainik direla eta Orgiko basoan ikasleko 2 euro ordaindu behar dela. Hona hemen 2013. urteko datuak



1. Grafiko zirkularra: Bertiz bisitatzen duten eskolen datuak ehunekotan adierazita.



2. Grafiko zirkularra: Orgi bisitatzen duten eskolen datuak ehunekotan adierazita



3. Grafiko zirkularra: Ilunberriko arroila bisitatzen duten eskolen datuak ehunekotan adierazita

Bertizeko grafikoa analizatuz gero ikastola kontzertatu gehiagoren bisitak jasotzen dituztela ikusten da. Dena den, publiko eta kontzertatuen arteko aldea oso txiki da eta bien artean diferentzia handirik ez dagoela hauteman daiteke.

Orgi eta Ilunberrin, aldiz, kontrako efektua gertatzen da. Orgin Ikastetxe publikoak desberdintasun handi batekin nabarmenzen dira ikastola kontzertatuen gainean. Ikerketa egiterako orduan horrelako desberdintasun handiak ez topatzea espero zen, hala ere, agerian dagoen moduan, orgi bisitatzen duten eskolen bi herenak publikoak dira. Ilunberrin, bestetik, guztiz kontrakoa gertatzen da, eskolen 2/3ak kontzertatuak dira. Hain alde handien arrazoia ematen dituen argibiderik ez dira aurkitu ikerketa hau burutzerakoan.

Dena den, hiru zentroetako kopuruak batuz gero, ikastetxe publiko eta ikastola kontzertatuen artean alde handirik ez daudela ikus daiteke. Hezkuntza publikoaren alde oso ongi hitz egiten duen datua dela uste dut. Baliabide ekonomiko murritzak izanik, eskaintzen duten hezkuntza kalitatea mantentzeko esfortzu handiak egiten ari direla ikusten da.

4.5 Zonaldeko eskolen programak

Ikertutako hiru eremu natural hauen zonaldeetan (Orgi eta Bertizko basoak eta Ilunberriko arroilak) ikastetxe desberdinak aurki daiteke. Halaber Orgi basoa kokatuta dagoen zonaldean Larrantzarko eta Jauntsarasko ikastetxe publikoak aurkitzen dira, Bertizarana eremuan Elizondo, Mugairi eta Malerreka koko ikastetxeak eta, bestetik, Ilunberri herrian bi eskola aurki daiteke Arangoiti ikastola eta Donibane ikastetxea.

Ulergarria izango litzateke eremu natural hauetatik hain hurbil dauden eskolek probetxu edo etekina handiago ateratzea. Hain zuen, espazio natural hauetako Nafarroako geografiaren eta ingurumenaren adierazleetako garrantzitsuenak dira eta, beraz, inguruneko haurrentzat guzti hau ezagutza derrigorrezkoa izan beharko litzateke. Aldiz, soilik Ilunberriko eskolek haien zonaldeko eremu naturalarekin programa trinko bat dute. Arroileko interpretazio zentroko monitoreak eta bi eskoletako irakasleen artean programa bat dute non gelan lantzen den gaiaren arabera ateraldi edo tailerrak antolatzen dira, klasean landutakoari beste ikuspegi bat emateko.

Origin, aldiz, basoaren monitorearen hitzetan, Larrantzarko eskolaren irakasleriaren arabera antolatzen dira irteera gehiago edo gutxiago. Horrela, duela urte batzuk egondako naturan interesatua zen irakasle batek irteera anitzak antolatzen zituen Orgira. Egun, aldiz, oso gutxitan joaten dira Larrantzak eskolako haurrak Orgi basoan murgiltzera eta ikastera.

Berdin gertatzen da Bertzen, duela urte gutxi arte programa bat edo beste antolatuta zeukaten zonaldeko eskolarekin, baina azkeneko urteetan hauetako erabat murriztu dira. Hala ere, haur hezkuntzako irakasle eta ikasle berriei jarduera berriak eta programa bat sortzen ari dira, baliteke orduan, iragan hurbil batean, haur txiki hauetako inguru hurbila ezagutzeko irteeraz gozatzea.

Honen inguruan sortzen den eztabaidea oso deigarria da. Programa trinkoa duten eskoletako haurrek, (ilunberrikoak) naturaren inguruko gaietan erabat interesatuak daude eta, gainera, askoz gehiago ikasten dute. Nahia Villanueva, Ilunberriko arroiletako monitoreak honakoa dio:

klasean landuz gero hemen galderak botatzen dituzte eta joku gehiago ematen du. Nik hori ikusi dut asko Ilunberrikoekin. Badira haurrak nik baino gehiago dakitenak hegaztien inguruan. (Ikusi 2. Eranskina, 82)

Beraz, hain emaitzak onak lortzen direla ikusita, ikastetxe baten zonaldean eremu natural bat ez aprobetxatzea hutsegite larria lirateke. Eztabaidea hau luzatu daiteke Nafarroako edozein eskolara, hain zuzen, ez da beharrezkoa ikastetxearen ondoan erreserba natural bat izatea irteera hauek egiteko, baizik eta eskolaren ondoko parkera irteera txikiak antolatzu ikasleen natur hezkuntzan aurrerapen handiak lortu daitezke.

4.6 Satisfazio inkesten emaitzak

Ikerketa hau egiteko interpretazio zentroek irakasle eta ikasleei egiten dizkieten satisfazio inkesten emaitzak aztertzeko posibilitatea egon da. Ikertu diren hiru zentroen emaitzak oso onak direla ikusi egin da, hain zuzen, ikasleek bisitatik oso pozik atera direla aitortzen dute eta, irakasleak aldiz, joan diren ikasleen arabera oso ongi moldatuak aurkitu dituztela jarduerak erantzuten dute.

Oso kritika positiboa jasotzen dituzten zentroak dira hauek eta, beraz, datu hauek oso ongi hitz egiten dute eremu natural hauetan egiten den lanaren inguruan. Aurreko puntuarekin lotuz, gure komunitateko haurrak ezin dira utzi eremu hauek (edota beste batzuk) ezagutu gabe, beraz etorkizuneko irakasleek naturaren inguruko gaietan oso formatuak egon beharko lirateke, ikasleei benetako kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.

4.7 Eskolako bisitaldien behaketa eta azterketa. Ilunberri eta Bertiz

Ikerketa osoan zehar natur interpretazio zentroetan egiten den lanaren inguruan hitz egin ondoren, atal honetan natur ingurune hauetan izandako esperientzia pertsonala islatuko dut. Horrela, Ilunberriko eta Bertizko zentroetako ikasleei egiten dizkieten bisita gidatuetan parte hartu nuen. Modu honetan, zentro hauetan egiten diren ateraldiak gidatzeko metodologia lehenengo pertsonan ikertzeko aukera izan nuen.

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

4.7.1 Bertizko natur interpretazio zentroko monitoreak gidatutako ateraldi baten deskripzioa eta balorazioa.

Lehen hezkuntzako bigarren mailako bisita gidatu baten partaidea izateko aukera izan nuen Bertizko jauregiko basoan. Egun horretan Irun herriko ikastetxe baten bisita izan zuten. *Elatzeta ikastetxe publikoa* hain zuen. Irakasleek bi orduko bisita tipoa egitea aukeratu zuten. Kasu honetan, urteko programazio orokorrean zehaztuta zeukaten irteeraren data, beraz, irakasleek ezin izan zuten irteeran landutako edukiak ikasgelan txertatu, aldiz, hurrengo gaiari sarrera emateko erabiliko zutela aitortu zidaten.

Hasteko, monitoreek ikasleak hiru taldeetan banatu zitzuten (20 ikasle inguruko taldeak). Iosune izeneko monitorearekin egon nintzen goiz horretan. Horrela, basoan zehar hurrengo ibilbidea eta jarduerak egin zituen ikasleekin.

Lehenengo joku bezala ikaslei erakusten zaie, lurrean borobil batean eserita, basoan aurki dezaketen animalien irudiak. Modu honetan haurrak motibatzen dira, animali irudi bakoitzarekin istorio edo ipuintxo bat kontatzen zaielakoz. Joku honetan haurrak basoko animali eta landarediarekin murgiltzea lortu zuen Iosunek (monitorea) gainera, ikasleen jarrera oso ona izan zen.

Ondoren, bide bat jarraituz taldea basoan sartzen da. Bertan, ibaiaren ondoan dagoen txoko batean ikasle guztiei begiak estaltzen zaie eta monitoreak eskatzen die isil- isilean basoan entzuten dituzten soinu desberdinak zenbatzeko. Jarduera honen bitartez ikasleek natura eta gizartearen arteko erlazioaz ohartzea bilatzen da, hain zuen, animali edo ibaiaren soinua entzuten dute, baina baita ere, zenbait gizaki ekintzen soinuak ere.

Ondoren, basoaren eremu zabal batean ikasleak binaka jartzen dira. Lagun bat begiak itxita darama estalki baten bidez, eta besteak bere laguna gidatu behar du zuhaitz bat “besarkatzera”. Ondoren, gidariak zuhaitzetik urrun dagoen beste puntu batera eraman behar du bere bikotea eta, monitoreak baimena ematerakoan, estalkia kendu behar du eta saiatu behar da besarkatu duen zuhaitza aurkitzen. Ikasleak gehien disfrutatutako jolasa izan zen hau.

Basoaren barreneko ibilbidea bukatzeko, zaharkitua dagoen ikatz-tegi baten inguruko ipuin bat kontatzen zaie eta azkeneko jokua proposatzen zaie. Ikasle guztiei animali baten irudia erakusten zaie eta, irudia ikusi ez duen ikasle batek saiatu behar da, ikaskideei galderak eginez, zein animali ikusi duten asmatzen. Joku honetan, animalia asmatu behar zuen ikasleak monitorearen laguntza izan zuen. Hain zuzen, ikasleek ez zekiten zein galdera planteatu ahalik eta animalia asmatzeko pista gehiago lortzeko.

Irteerari amaiera emateko ikasle eta irakasleei satisfazio inkestak banatu zitzaien. Icasleen kasuan, lehen zikloekin egiten den modua holako denez, monitoreak galderak boz gora irakurri zituen eta ikasleen erantzunak idazten zituen.

Bisita osoan zehar aurkitzen zituzten txoko bakoitzarekin eta egindako jolasekin ikasleek erabat ilusionaturik eta motibatuak egon ziren. Nire iritziz jarduerak ikasleen adinera oso ongi moldatuak zeuden eta esan daiteke metodologia aktiboa eta metodologia transmitiboa konbinatzen dituzten jarduerak direla hauek.

Bertzen egiten den bisita deskribatzen saiatu izan naiz, hala ere, bertan ematen diren gai implizituak kontatu gabe gelditu direla seguru nago. Jarraian bisitaren eskema aurkeztuko dut. Bertan gauzatutako jokuak agertzen dira.



5. Irudia: Bertiz basoan behatutako ateraldiaren dinamika

4.7.2 Ilunberriko interpretazio zentroko monitoreak gidatutako ateraldia.

Kasu honetan, Ilunberriko Arangoiti ikastolarekin egindako ateraldi bat behatzeko aukera izan nuen. Antolakuntzaren arabera ateraldi desberdina izan zen hau. Hain zuzen, Arangoitiko ikastolak Arberoa izeneko ikastola frantziarraren bisita zeukan, beraz, eginiko ateraldia bi ikastolen arteko ikasleekin aurrera eraman zen. Arangoitiko ikastola oso txikia da eta ikasle gutxi

dituenez klaseak mailaka antolatu ordez zikloka antolatuak daude. Horrela bigarren ziklo eta 5. Mailako haurrekin egin zen ateraldia hau.

Ikastolan geratu ginen ikasleekin eta bertatik, ordu beteko ibilaldia eginez, oinez abiatur ginen arroiletara. Arberoa ikastolako ikasle eta Arangoiti ikastolako ikasleen artean erlazioak sortzearen, irakasleek bikoteak egin zituzten, kide bakoitzak ikastola desberdinekoa izanez. Horrela, arroiletara iritsi bezain pronto lehenengo jarduera egin zituzten haurrak. Ikasleak taldeka jarriz, talde bakoitzari inguruan aurkitzeko “gauzen zerrenda” bat eman zitzaien. Zerrendan ikasleak aurkitu beharreko elementuak agertzen ziren; gorri koloreko zerbait, hosto bat, hezur bat, irribarre bat, naturarako erabilgarria ez den zerbait ... joku honen bidez, jarrerazko edukiak lantzen dira, hain zuzen, haien ikusten dute zein diren elementu naturalak eta zeinek naturari kalte egiten dieten elementuak (plastikoak, paperak ...) Jarduera honen bidez ikasleek haien begiekin ikusten dute zein den gizakiaren eragina ingurugiroan.


Ariketa hau bukatzerakoan hamaketakoa hartu zuten eta, ondoren, programatutako bigarren jarduera egin zuten. Aurreko ariketan egindako taldeak mantenduz, oraingoan haurrei eskatzen zaie lerro bat osatzea, *tren itsuaren* jokoa egiteko. Horrela, makinistak begi irekiak eramanez, talde osoa gidatu behar du arroileko ibilbide barrenean. Ikasleei asko gustatu zitzaien jarduera hau, hain zuzen, ikusten ez zuten haurrek sorpresa hartu zuten tuneletako tenperatura jaitsierarekin.

Ibilbideko bi tunelen artean ateraldiko jarduera indartsuena egin zuten. Monitoreak eramandako bi teleskopio eta ikasle batzuk eramandako prismatikoei esker, ikasle guztiak hegaztiak eta, bereziki, sai arrea ikusteko aukera izan zuten. Arroileko paretetan eraikitako kaiolak ikusi zuten eta sai kumeak nola elikatzen diren ikusteko aukera izan zuten baita ere.

Aipatzekoa da, talde handia zenez eta iparraldeko ikastolen ordutegia mugatua zenez (autobusa eguerdian hartu behar zuten) monitoreak, ez zuela bisita hauetan ohikoa den azalpena sai arren elikadura eta ugalketaren inguruan egin, hala ere, ikasle frantziarrak gai honetan Ilunberriko haurren laguntza izan zuten, hauek, hain zuzen, hegaztien benetako adituak baitziruditen.

Hegaztien behaketa egokia bermatzearen, behatu zezaketen hegaztien irudiak banatu zitzaien ikasleei. Irudi hauetan sai arrea, sai zuria eta arroiletan behatu zezaketen hegaztiak agertzen ziren.

Ikasleen atentzioa eta dinamismoa mantentzearen oso jarduera egokiak dira hauek. Jardueren planteamenduari dagokionez, ikasleek ikasgelan irteeran landuko diren edukien aurreikuspen bat egiten badute (sai arrearen elikadura, ugalketa, zein elementuak birziklatzen dira naturalki ingurugiroan ...) arroiletan egiten diren jarduerei etekin askoz handia aterako diete.



6. Irudia: Ilunberriko arroiletan behatutako ateraldiaren dinamika.

4.7.3 Bisiten metodologia

Ikertutako bi interpretazio zentroetako bisita hauen jarduerak oinarri ludikoa daukate. Jarduera guztiak diseinatuta daude ikasleek, jokoaren bidez, naturarekin harremanatzeko. Hala ere, izaera ludikoa izateak ez du esan nahi elementu didaktikorik ez dituztenik. Ahal den heinen azalpenen bidezko metodologia transmitiboa (ikasleek azalpenak entzuten dituzte eta barneratzen dituzte, belakien antzera, baina ezaguera eraiki gabe) murrizten da, eta hala izatekotan, ikasleei moldatutako hizkuntza erabiltzen da azalpenetan.

Modu honetan, jarduera gehienetan naturarekin erlazionatzearen ondorioz ikasleek ezaguera sortzea bilatzen da (Zuhaitzak besarkatzerakoan zeinek diren handiagoak, zentzumenen bitartez ingurunean dauden soinuez ohartzea, naturarekiko errespetua etab.) metodologia aktiboak nagusitzen da hain zuen (arreta mantentzea, monitoreak galdera errazen bidez ikasleak implikatzea, galderen arabera ikasleek erantzuna bilatzea ezaguera eraiki dezaten etab.) Metodologia aktiboari esker, beraz, ikasleak baliabide naturalek eskaintzen duten aukeretatik zuzenean ikastea bilatzen da.

Erabilitako materialei dagokionez ikusten da zentro desberdinatan antzeko materiala eta baliabide didaktikoak dituztela. *Gynkana* baten antzeko jokoak edota begi estalkiak, adibidez. Bestetik, zentroetan irakasleei bidaltzeko unitate didaktikoak dituzte, non klasean landu daitezken ariketak eta irteeran egingo diren jarduerak proposatzen dira.

ONDORIOAK

Lehen hezkuntzan eta, oro har, hezkuntza sistemaren etapa guzietan natur eremura lan irteerak egin behar dira. Hau da, hain zuzen, emaitzak aztertzerako orduan ateratzen dudan lehenengo ondorioa. Egungo ikasleek ikasgela eta eskolaren barruan ordu asko pasatzen dituzte eta gaur egun dituzten estimulu ugariak kontuan izanda ulergarria da arbela edo liburu baten aurrean denbora asko kontzentratuak pasatzea haientzat zaila suertatzea. Horregatik, argi daukat ikasleak lan irteerak behar dituztela, ikusi behar dute hezkuntza ez dela bakarrik orduak pasatzea liburu bateko ariketak egiten, haien ingurumen hurbilean murgildu ondoren eraikitzen dituzten ezaguerak baizik. Irakasleek ikasgelan bakarrik ez dute irakatsi behar, baizik eta kalean, parkean eta naturan ere.

Bestetik ulertzeko zailak diren kontzeptu abstraktuak lan irteeren bidez lantzen dira manipulazio eta behaketaren bidez. Adibide bezala, Ikasle batek polinizazio kontzeptua eta prozesua ez badu ulertzen, oso erraxa da parke batera eramaten badugu eta bertan ikusten badu *zer* eta *nolakoa* den prozesu hori.

Berdin gertatzen da klaseetan ematen diren hainbat eta hainbat kontzeptu abstraktuekin. Curriculumeko edukiak analizatzu gero (4.3 atala) ikusten da oso erraxa dela eduki hauek natur interpretazio zentroak eskaintzen dituzten programekin lantzea. Lan irteerak egitearen emaitzak Ilunberriko ikasleek naturaren inguruan menperatzen dituzten ezagueretan ikusten da (desberdintzen dituzte zonaldeko hegaztiak, Ilunberriko arroila sortzearen historia eta bertan aurki daiteken landaretza); *Los Sauces* ikastetxean, Ignacio Juanbeltz zuzendaria eta irakaslea izanik, bertako ikasleek ingurugiroko gaietan eskuratutako maila handian edota Pitarch (2013) idatzitako artikuluan agertzen den bigarren hezkuntzako *Juan Bautista Porcar* insititutuan (Castellon de la plana) egindako proiektuaren emaitzetan. Adibide hauen bitartez lan irteeren onurak prezia daiteke. Hain zuzen, artikulu teorikoak oso ongi islatzen dituzte irteeren onurak, baina errealityean aurkitzen diren ikasleen ezaguerak dira metodo honi indarra ematen diona.

Gaiaren inguruko artikulu eta liburu en inguruan hitz eginez, lan irteeren inguruan dagoen bibliografia nahiko zaharkituta dagoela aipatzeko da. Ikerketa hau egiteko erabili diren artikulu eta liburu gehienak duela hamarkada bat argitaratuak daude. Wass (1992), Nieto (1990) edota Del Carmen eta Pedrinaci (1997) adibidez.

Horregatik, ikerketarako baliagarria den bibliografia aurkitzeko arazoak izan dira. Desagertu egin ahal da azken urte hauetan ikasleak naturara hurbiltzeko interesa? Gero eta errealtitate globalizatu eta urbano batean biziz gero, ikasleek naturarekin ikasteko ohitura galtzen ari al da? Ez dut uste naturan lan egiteko metodologia galtzen ari denik, baizik eta azken urteetako hezkuntzaren esparru berriak (teknologi berriekin lotuta gehien bat) ikertzeko joera nagusitu delakoan nago. Hala ere, gaur egungo naturaren errealtitatea lantzeko metodologia berritu behar delako uste dut. Hain zuen, errealtitatea abiadura handiarekin aldatzen ari da eta duela hamarkada bateko metodo metodoa, gaur egun zaharkituta izatea suertatu liteke.

Ikerketako datuak analizatu ikusten da Bertiz, Ilunberri eta Orgi Nafarroako ikastetxe eta ikastola asko bisitatzen dituztela. Zein nolako programa didaktiko eta baliabideak eskaintzen dituzten ikusita ulertzeko da eskolek bisita ugari egitea espazioa hauetara. Programa hauek oso ongi bideratuta daude lehen hezkuntzako ikasleentzat eta proposatzen diren jarduerak eta ariketak naturareniko interesa eta jakin-mina pizteko diseinatuak daude, bai eta naturarekin erlazionaturiko edukiak lantzeko (Geologia, animaliak, landaredia ...)

Dena den, azken urte hauetan ikastetxe eta ikastolen murrizketa bat ikusi egin da. 2010. Urtetik hona eskolek egiten dituzten natur interpretazio zentroetako irteerak murriztu egin dira. Krisi ekonomikoaren urte bortitzekin batera gertatu da beherakada hau, dena den, bi elementu hauek erlazioan jartzen dituen adierazlerik ez da zehaztu. Beste aldetik, ikastetxe eta ikastolen arteko konparaketan ikusten da ez dagoela desberdintasun handia bi eredu ekonomikoen artean. Orgi, Ilunberri eta Bertizko datuak analizatuz, ikusten da Bertiz bisitatzen duten eskolen %47 publikoak direla, Orgin kopuru hau %68 -ra arte handitzen dela eta Ilunberri, aldiz, %37ra murrizten dela. Hiru zentroen

datuak batuz eta osotasunean analizatuz gero, eredu ekonomikoen artean desberdintasun handia ez dagoela ikus daiteke.

Hori bai, eremu naturalera egiten diren lan irteera hauek oso ongi moldatuak eta helburu zehatzekin diseinatuak egon behar dira irakaslearen partetik. Desberdinak dira helburu didaktikorik gabe naturara egiten diren eskurtsioak edota helburu didaktiko batekin eta klasean landuko den gai baten inguruan egiten diren lan irteerak. Azkeneko hauek bai dira ikasleak benetan aprobetxatu dezaketen irteerak.

Badira Irakasle asko mota honetakoak egiten dituztenak. Hala ere, beste irakasle multzo handi bat mota honetako irteerak ez dituzte antolatzen. Ikertutako satisfazio inkestetan eta interpretazio zentroen monitoreen hitzetan ikusten da natur interpretazio zentroetara joaten diren irakasle gehienek urtero errepikatzen dutela, hori esan nahi du, hain zuzen, naturan interesatuak edota irteeren onurak ezagutzen dituzten irakasleak egiten dituztela ateraldi hauek.

Beraz, hain onuragarriak badira lan eremura irteerak antolatzea (kontzeptu abstraktuak hobeto ulertzten dituzte ikasleek), zergatik ez dira eskola guztietaen potentziatzen? eta zergatik ez dituzte irakasle guztiekin egiten?

Nafarroako Unibertsitate Publikoan egungo eskolan egiten den esperimentazio zientifikoak aztertzen duen ikerketa bat egin zen. Arlegui eta Ibarra (2009). Honen arabera ikertutako irakasleen %9 soilik egindako esperimentazio jarduerekin lortutako emaitzarekin pozik daude. Gainera irakasleek aitortzen dute haien prestakuntza ez dela egokiena jarduera hauek diseinatu eta planteatzeko. Horregatik ere ebaluatzeako arazoak dituztela azaltzen da. Bestetik ikusten da esperimentazio jarduerak bultzatzen direla laborategi bat duten zentroetan eta, honekin batera, zentro hauek egiten dituzte lan irteerak laborategia duten zentroak baino ugariagoak direla.

Elkarrizketatutako pertsonen iritzi ezberdinak ikusi ondoren, lan irteera hauen antolaketa naturan interesatuak dauden irakasleen esku geratzen dela ikusten da. Beraz, suposatzen da, hezkuntza sistemako haur guztiei kalitezko lan irteerak egiteko aukera ez zaiela eskaintzen.

Horrela ba, Gaur egungo irakasleek, bai akademikoki (formakuntzaren aldetik), bai ekimen pertsonalaren aldetik natur eremuetara lan ateraldiak antolatzeko prestaturik ez daudela esan daiteke. Honekin, ikusten da nola ikasle batzuk beste batzuk baina ezaguera gehiago dituztela naturaren inguruan. Herrikoak edo hirikoak diren ikasleen eztabaidea gaindituz, *ikusten da nola naturan adituak diren irakasleak lan irteerak bultzatzen dituzte eta hain adituak edo interes gutxi dituzten irakasleak ez hainbeste.* Horrela, ikasleei hezkuntza kalitate desberdina eskaintzen zaio. Hori da, hain zuzen, saihestu egin behar dena. Modu batean edo bestean ikasle guztiak kalitatezko hezkuntza izateko eskubidearen alde lan egin behar delakoz.

Egoera hau aldatzearen honako proposamenak egiten dira, hain zuzen, Nafarroako Unibertsitate Publikotik eta irakasle formakuntzarako organo guztiatik natur ingurumenaren ezagutza sakonarekin, Nafarroako eremu naturaletan haurrentzat dagoen eskaintzarekin eta irteera hauek antolatzeko eta klaseetan txertatzeko menperatu behar diren ezaguerekin graduatu beharko liratekeelakoz.

PROPOSAMENAK

Ikerketatik eskuratutako ondorioak kontuan izanda honako proposamenak egiten dira lehen hezkuntzan ingurune naturalera egiten diren lan irteerak hobetzearen.

- Bertiz Ilunberri eta Orgiko interpretazio zentroen bisitariak berreskuratzea izango litzateke lehenengo ekimena. Duela lau urte zentro hauek bisitatzen zitzuten ikasleen kopurua gaur egunekoarekin konparatuz diferentzia handia ikusten da. Gainera, eremu natural hauek lehen hezkuntzako ikasleentzat eskaintzen dizkieten abantailak eta onurak ikusiz, irteera hauek potentziatzea ezinbestekoa litzateke.
- Nola berreskuratu? Elkarrizketetan ikusten den moduan irakasle asko eremu natural hauetan dauden edukien eskaintza ez dute ezagutzen. Horregatik, natur interpretazio zentro hauek dituzten unitate didaktikoak eta programak hezkuntza sistemara ezagutarazteko modu berriak

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

uztartu behar dituztela uste dut. Edota irakasleen formakuntza organoetatik interpretazio zentroetan landu daitezken edukien inguruko ikastaroak sortuz.

- Bertiz eta Orgi zonaldeko eskolen irteerak potentziatzea. Emaitzetan ikusten den moduan Ilunberrin herriko eskolekin dagoen programa eta tailerrak oso emaitza onak ematen dituzte. Horregatik, Orgi eta Bertiz zonaldeko eskolek mota honetako programak edukitzea ezinbestekoa ikusten dut. Zonalde hauetako haurrak eskura duten eremu natural hori ezagutu behar dute. Hain hurbil dituzten eremu hauetatik asko ikasi dezakete haurrak eta natur inguruneko ikasgaiko edukiak, zein beste ikasgaiko edukiak, modu interdisziplinarrean lantzeko aukera ezin hobea dute.
- Gainera eremu hauek diseinaturiko programak eta unitate didaktikoak curriculumak zehazten dituen edukiak errealtitatean lantzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute. Horregatik, abstrakzio maila konplexuko kontzeptuak eremu hauetan landuz gero ikasleek askoz hobeto ulertuko dituzte. Curriculumak zehazten dituen eduki hauek zentro hauetan lantzea proposatzen da.

Lehenengo zikloan:

- Era askotako bizitza moduak behatzea
- Landareen eta animalien ezaugarri fisikoak eta jokabideak beren inguruneekin lotzea (kamuflajea, kolorea eta ilearen loditasuna aldatzea, etab.)
- Animaliak eta landareak zuzenean eta zeharka behatzea
- Izaki bizidunak zaindu eta errespetatzeko ohiturak garatzea.
- Egindako esperientziak ahoz azaltzea, irudien eta testu idatzi laburren laguntzarekin.

Bigarren zikloan:

- Harkaitzen identifikazioa eta oinarrizko sailkapena.
- Paisaia mota ezberdinak behatu eta deskribatzea.

- Izaki bizidunak zuzenean behatzea, tresna egokiekin eta ikus-entzunezko baliabideekin eta baliabide teknologikoekin.
- Nafarroako aniztasun geografikoaren elementu garrantzitsuenak: erliebea, klima, landaredia eta ibaiak.
- Nafarroako eremu geografikoetan ohikoenak diren animaliak eta landareak.

Hirugarren zikloan

- Landareen egitura eta fisiologia.
- Animaliak eta landareak identifikatzeko gako eta gidak erabiltzea.
- Nafarroako eremu geografikoak eta beren arteko desberdintasunak (klima, erliebea, ibaiak eta landaredia)

- Hiriko eskolak eremu naturalera gehiago hurbiltzea. Landa eremuko haurrek eduki naturalak hirikoak baino hobetu ezagutzen dute. Horregatik, hirietako eskolek eremu naturaletara lan irteerak antolatzeko ekimena bultzatzearen alde nago.
- NUP-en eskaintzen den Lehen eta Haur Hezkuntzako irakasle graduari begira, behin ikusita ingurune naturalera gaian interesatuak dauden irakasleak ateraldi gehiago antolatzen dituztela, proposatzen da natur zientzien ikasgaiaren barrenean garrantzi gehiago ematea lan irteerak antolatzeko edukiei eta lan irteeren onurak azpimarratzen dituzten edukiei. Proposatzen da, beraz, eduki hauek garrantzia irabaztearren giza eta gizarte zientzien fakultateak Nafarroako natur interpretazio zentroekin adostasun batera ailegatzea magisteritzako ikasleek zentro hauetara joateko aukera izateko. Hau da, karreran ematen den Natur Zientzien ikasgaia aldatzeko honako proposamena egiten da:
- Gorputz heziketako mentzioan egiten den moduan, *Natur zientzien didaktika* ikasgaia bi zatitan banatzea eta atal bakoitza hiru kreditukoa izatea proposatzen da.

Natur zientzien didaktikaren alde teorikoaren edukiak landuko dira atal batean eta bestean, aldiz, natur zientzien didaktikaren eduki praktikoak.

Atal teorikoan orain arte landu diren edukiak lantzen jarraituko da eta atal praktikoan eduki hauek errerealitatera eramatea bilatuko da.

- Atal praktikoan honako jarduera egitea proposatzen da: Magisteritzako ikasleak lan irteeren onurak ikastea eta hauek diseinatzen eta planteatzen ikastea. Horretarako lehengo pertsonan ikusi beharko dituzte ikasleek abantaila hauek. Nola? Unibertsitatetik natur interpretazio zentroetara (Bertiz, Ilunberri eta Orgi) ateraldiak antolatzu.

Ateraldi hauetan magisteritzako ikasleek lehen hezkuntzako ikasleak bezala jardungo dute. Ondoren, lehen hezkuntzako ikasleekin zentroa bisitatzeko lan plangintza bat sortzea eskatuko zaie ebaluazio moduan.

Gorputz heziketako *actividades en el medio natural* ikasgaiaren planteamendua kopia daiteke. Ikasgai honetan, ikasturteko lau larunbatetan Nafarroako gobernuak bultzatzen dituen kanpaldiak ezagutu genituen (aste zuria, izotz astea, aste berdea eta aste urdina). Horretarako, kanpaina hauek egiten diren tokietara desplazatu ginen eta lehenengo pertsonan ikasi genuen nola antolatzen diren kanpaina hauek.

Eredu hau jarraituz, magisteritzako ikasleek ikasi dezakete naturan lantzen diren edukiak askoz ere probetxugarriak direla lehen hezkuntzako haurrentzat. Gainera, ikasleen naturarekiko interesa bultzatuko da eta lehen hezkuntzako haurrak klasifikatik ateratzea eskertzen duten moduan, magisteritzako ikasleek ikasgelatik ateratzea baita ere eskertuko dute.

BIBLIOGRAFIA

Barnes, P.; Sharp, B. (2004). *Outdoor education*. Trowbridge: Cromweel press

Curriculum de Educación Primaria. Gobierno de Navarra, Departamento de Educación.

Del Carmen, L. (2010). Salir para conocer, salir para participar. *Alambique, didáctica de las ciencias experimentales*, 56-59, (66)

Del Carmen, L.; Pedrinaci, E. (1997). El uso del entorno y el trabajo de campo, en Del Carmen, L. (coord). *La enseñanza y el aprendizaje de las ciencias de la naturaleza en la educación secundaria*. Barcelona: Horsori.

Frabboni, F. (2005). *La escuela del laboratorio. Mas allá del proyecto y del currículo*. Madrid: Editorial popular

Garcia, J. (). *El trabajo de campo en la educación primaria*. Oviedo: Universidad de Oviedo

Juanbeltz, J.I. (2002). *Materiales didácticos para la educación ambiental*. Barcelona: Cisspraxis.

Julián, J.A.; Estévez, S.; Aguareles,I. (2013). Tree-athlon, un proyecto de respeto por la naturaleza y ocio en la escuela rural. *Aula de innovación educativa*. 42-28, (225)

López, R.E.; Deslauriers, J.P. (2011). La entrevista cualitativa como técnica de trabajo para la investigación en trabajo social. *Margen*. 1-19, (61)

Nieto, J.M. (1990). *Como aprender y divertirse en las visitas escolares*. Madrid: Editorial de las escuelas españolas

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

Pedrinaci, E. (2012). Trabajo de campo y aprendizaje de las ciencias. *Alambique, didáctica de las ciencias experimentales*, 81-89, (71)

Pitarch, R. (2013). Proyecto educativo de itinerarios botánicos en la ciudad. *Alambique, didáctica de las ciencias experimentales*. 99-106, (75)

Rodriguez, G.; Gil, J.; Garcia, E. (1996). *Metodología de la investigación cualitativa*. Málaga: Aljibe.

Rousseau, J.J. (1977). *Emilio o la educación*. Madrid: Edaf

Sanchez, A. (1995). El trabajo de campo y las excursiones. *Enseñar geografía. De la teoría a la práctica*. Capítulo 8.

Toro, R.; Morcillo, J.G. (2011). Las actividades de campo en educación secundaria. Un estudio comparativo entre Dinamarca y España. *Enseñanza de las Ciencias de la Tierra*, 39-47, 19(1).

Vargas, I. (2012). La entrevista en la investigación cualitativa: Nuevas tendencias y retos. *Calidad en la educación superior*. 119-131, 3(1)

Wass, S. (1992). *Salidas escolares y trabajo de campo en la educación primaria*. Madrid: Morata.

Wilhelmi, M.; Arlegui, J.; Ibarra, J.; Gil Quilez, M.J. (2009). Experimental activity in primary education: restrictions and challenges. European Science Education Research Association. ESERA conference, Istanbul.

ERANSKINAK

Ingurumen baliabide didaktikoak Nafarroan eta haien interesa Ingurune Naturala ezagutzeko eskolan / Los recursos didácticos ambientales en Navarra y su interés para el estudio del medio natural en la escuela

ERANSKINA 1.

1.1) Zentroko monitoreei egindako galdetegia

ORGI / ILUNBERRI / BERTIZ

Zentroaren historia eta orainaldia ezagutzeko galderak.

Noiz eta nola sortu zen natur eremu hau interpretazio zentroa bihurtzeko ideia?

Honen inguruan, noiz hasi zen lehen hezkuntzako ikasleekin lan egiten?

Zein da zentroaren helburua ikasleekiko?

Zentroaren datuak

Zenbat eskolen bisita jasaten duzue denboraldi? Hauen kopuruak biltzen al dituzue?

Zein ikastetxe joaten dira gehiago?

Eskualdeko eskolak ba al du programaren trinko bat edo gutxitan joaten da?

Pentsatzen al duzue zonaldeko eskolak potentziatu dezakeela zentrorako bisitak zonaldeko haurrek hobeto ezagun dezaten ingurumen natural hau?

Eskola batekin programa finkoren bat izatekotan, eskualdekoarekin adibidez, eta urtean behin etortzen direnen artean, zein nolako desberdintasunak nabaritzen dituzue ikasleen edukiak barnatze eta ulertzeko orduan?

Zentroak dituen baliabideak eta ikasleentzako duten eskaintza.

Programan ikusi daitekeenez, jarduerak desberdinak proposatzen dituzue haurren adinaren arabera, nolakoak dira hauek?

Jarduera hauek diseinatzeko orduan kurrikulumean ezartzen diren edukiak kontuan izan al dituzue?

Ikasleei zuzenduta ze nolako baliabideak ditu zentroak?

Lehen hezkuntzako ikasleen erantzuna eta jarrera

Nolako jarrera daukate ikasleek bisitetan?

Irakasleei zuzendutako satisfazio inkestak daukazuela ikusi dut, emaitza positiboak ematen dituzte hauek?

Ikastolekin harremana

Ikastetxeak bisita izan aurretik gelan lantzen dute?

Horrela izanez gero uste al duzue nahiko lantzen dela bisita klasean?

Iradokizunen bat lehen hezkuntzarekin egiten den lana hobetzeko

1.2) Zentro bat bisitatzen duten irakasleei egiteko galdetegia.

Zergatik aukeratu duzue (zentroa) ateraldia egiteko?

Momentu honetan ze gai edo unitate didaktiko ari zarete eskolan jorratzen?

Bisita egin aurretik egin al duzue honen inguruko ikerketa edo lan bat eskolan?

Honen inguruan, klasean jarraipena emango al diozue bisitan ikusitakoari?

Aproposa iruditu al zaizue bisitaren edukiak adin hauetarako?

1.3) Jose Ignacio Juanbeltz, naturan adituari egindako galdetegia (gaztelaniaz)

¿En qué centros has trabajado?

¿Qué tipos de actividades o salidas al campo se realizaban en el centro en que más tiempo has estado?

¿Acudías a algún centro de interpretación de la naturaleza de navarra asiduamente? Como organizabas las excursiones? Es decir, ¿eran cosa tuya o venían impuestas por el plan de estudios?

¿Crees que los alumnos que realizan estas excusiones comprenden mejor algunos conceptos abstractos (la nutrición de las plantas, nutrición heterótrofa...) que los que realizan menos salidas?

¿Cómo introducías estas excursiones en la dinámica de clase? ¿Las trabajas antes? Y después de realizarlas?

Y ¿como las relacionabas con los contenidos curriculares?

¿Podrías decir que la realización de salidas al campo depende en gran medida de como es el profesor y de lo entendido e interesado que este en la naturaleza? Se podría decir que gracias a esto algunos niños están mas adelantados que otros? ¿Eres de la opinión de que debería ser obligatorio la realización de excusiones por parte de los centros?

¿Conseguías permiso del centro para la realización de estas salidas o te ponían trabas de tipo económico por ejemplo?

Una parte de mi trabajo habla sobre la hipótesis de que las excusiones al campo dependen totalmente del profesor. ¿Qué te parece? ¿crees que es cierto?

¿Crees que la realización de salidas al campo eran positivas para aquellos que en clase mostraban mal comportamiento? Si es así. ¿Lo tenias en cuenta a la hora de fomentar las salidas al campo?

ERANSKINA 2.

2.1) 2014ko apirilaren 6an egindako elkarritzketa Bertizko natur parkearen monitoreei. Elkarrizketa hau garatzeko Miren martikorena, parkearen arduradunaren laguntza izan nuen.

Galdera	<p>Lehenik eta behin mila esker parkean eman didazuen harrerarengatik. Prestatu ditudan galderak oso lehen hezkuntzako haurrekin egiten duzuen lana ikusteko zuzenduta daude. Horrela ba galdera orokorrekin hasiko naiz.</p> <p>Noiz eta nola sortu zen Bertizko interpretazio zentroa?</p>
Erantzuna (Monika)	<p>Bale, nik uste izango dela sortutako lehenengo zentroa Nafarroan. 1993 sortutako zentroa da. Bertizek daukana da zentroa dagoela lorategi barruan, ez da beste lekuetan bezala zentroa dagoela leku batean eta errepresentatzen duena beste batean. Hemen dena elkarrekin dago.</p> <p>Hala ere 2008 zentroaren edukina aldatu egin zen, nahiz eta etxea eta mantendu.</p>
Galdera	<p>Zein da Bertizko interpretazio zentroaren jarduera nagusiak eta helburuak lehen hezkuntzari begira?</p>
Erantzuna	<p>Orokorra bertiz eta bere basoa izango da. Badaude bi zonalde bata lorategia eta bestea basoa. Jende asko ezagutzen duena da lorategia, hala ere orain jende gehiago basoan murgiltzen ari da. Bertiz biltzen du dena hala ere, basoa, mendia, lorategia ...</p> <p>Basoaren sarrera libre da.</p> <p>Bisitariei ematen zaie planoa. Zentroan lantzen da Bertiz parke bat dela bere basoa eta lorategiarekin. Zentroaren azpiko solairuan erakusten da Nafarroaren barruan ze desberdintasun dagoen kolorearen arabera (paisajea). Baita ere esplikatzen da</p>

	<p>ze eragina izan duen historiak basoan (gerrak, gizakiaren eragina) pentsa jendea behar zuenean egurra ba eragina basoan, donostin zubi bat egiteko erabiltzen zen egurra ba Bertizko basotik etab.</p> <p>Eskolekin segun eta ze adinarekin lantzen dira Bertizko 10 ideak. Adibidez galdeztzen zaie, ze pentsatzen duzue Nafarroan basoa asko edo gutxi daudela? orokorrean erantzuna gutxi daudela izaten da. Edota baita ere basoa nola zaindu behar den ideia lantze da, eta horrelakoak.</p>
Galdera	Esan duzu adinaren arabera moldatzen direla jarduerak. Nola?
Erantzuna	<p>Zentroa berez bisitari guztientzat da, baina haur txikiiek, adibidez, haur hezkuntzakoekin ez zaie hainbeste zentroan murgiltzen eta bakarrik lorategia erakusten zaie.</p> <p>Honen inguruan monitoreak jakin behar du talde bakoitzari, segun eta nolakoa den, informazioa forma batean edo bestean ematen nahiz eta edukiak berdinak izan. Baita ere desberdina da hirietatik eskola bat edo zonaldeko eskola bat etortzen bada. Hemengoak, adibidez, jakingo dute nolako den hemengo basoa, Tuterakoak adibidez ez. Horregatik informazioa hautatu egin behar da. Ematen duzun informazioa ikasleek dakitenaren arabera moldatu behar da.</p> <p>Ekitaldi desberdinak daude adinaren arabera egitekoak, hala ere hauen hautaketa geratzen da monitorearen arabera. Monitoreak egokitzen du bisitaldia etortzen diren ikasleen arabera. Horregatik monitoreak errekurso asko izan behar ditu eta ikasle taldeari egokitu.</p> <p>Egia da markatuta daudela helburu batzuk bisitaldian betetzeko, baina hauetako lortzeko eta lantzeko moduan monitorearen esku geratzen da.</p>

	Monitoreak bost minutu lehenago biltzen dira materiala aukeratzeko eta landuko diren jokuak aukeratzeko. Bukatzerakoan baita ere biltzen dira bisitaldiaren inguruan hitz egiteko. Irakasleei ere satisfakzio inkestak ematen dizkiegu.
Galdera	Satisfazio inuesta hauek, ze nolako emaitzak ematen dituzte? Positiboak? Pozik ateratzen dira irakasleak bisita eta gero?
Erantzuna	Bai, gainera ikusi dezakezu, gero Mireni galdetuko diegu zuri bidaltzeko. Erantzuna hauen arabera ikerketa bat egiten da eta memoria bat egiten da. Eskolak azkenean pozik joaten dira, ingurua oso atsegina da eta beti ikasten dute zerbait.
Galdera	Entzuna daukat eskualdeko eskolarekin lan trinko bat daukazutela, nolakoa da lan hau?
Erantzuna	Klaro, guretzat zonaldea oso zabala da. Malerreka, zugarramurdi.. guzti hori hartzen dugu.
Galdera	Eskola hauek Iruñeko batekin konparatuz, maiztasun gehiagorekin etortzen dira? Besteak baino askoz ere hurbilago dute basoa.
Erantzuna	Kasi dira gutxien etortzen direnak. Parkeak eskola bisisak eta ekitaldiak duela urte asko antolatzen ditu eta oso onartua daude. Badire Iruña edo Gipuzkoatik urtero etortzen diren eskola eta horrela daramate 20 urte. Zonaldekoak, aldiz, ez dira hainbeste etortzen. Aurten adibidez, irailean KAP-era joan ginen parkea eskaintzen duena bertan erakustera. Horregatik aurten haur hezkuntzako zonaldeko eskolak bai apuntatu direla. Malerrekoak lau egunetan etorriko dira, Bertizarana ere bai, bortzirikoak bakarrik falta dira apuntatzeko. Eskola hauek gau bat pasatuko dute aterpean.

	<p>Bakarrik Mugaire eta Narbarteko eskolarekin programa txiki bat egin izan dugu. Udazkena eta udaberria deitzen den programa da. Udazkenean eterri ziren ikasle bakoitzak hartu zuen hazi bat eta eskolan landatu zuten ikusteko nola hazitzen den landarea. Horrela udaberrian ikertuko dute nola hazi den eta nolako izan den prozesua. Hala ere ez dakit ze urtetan egin genuen hau azkeneko aldiz.</p> <p>Gertatu zen KAP- era joan ginenean eta gure parkea aurkezterakoan irakasle asko ezagutzen zutela Bertiz baina ez zekitela ze eskaintza zegoen. Gainera doainik da taldeei egiten zaien bisita.</p> <p>Gauza da zein den eskolara eta irakasleei iristeko bide onena. Lehen adibidez bidaltzen zen eskoletara zentroak zer eskaintzen zuen eta egunkarietan agertzen zen baita ere. Baino gero hitz egiten duzu irakasle askorekin eta ez dakite zer dagoen. Niretzat hor dago koxka. Agin KAP-eko irakaslek bildu beharko ziren eta zentro hauetara bisita txiki bat egitea, 20 minutukoa edo ola, ikusteko zer dagoen.</p> <p>Konturatzan zara hemengo irakasleak, nirekin ikasitakoak, beraiekin hitz egiten, pentsatzen dutela adibidez ordaindu behar dela. Eta ez. Ez dakuzu ba irakasle hauek ez direla etortzen ez direlako enteratzen edo interesatzen ez zaielako.</p> <p>Normalean txikiek etortzen diren eskolak oso pozik etortzen dira, ingurunea bertan daukazu, zentroaren ondoan.</p>
Galdera	Eta etortzen diren ikasle horien artean nabaritzen al da zerbaitkin ateratzen direla hemendik?

Erantzuna	<p>Klaro, irakasle batzuk errepikatzen dute baina ikasleak ez. Orduan zaila da. ikasleei inkestak egiten zaie baita ere. Adibidez, zein hiru gauzekin geratu zara? Eta hor ikus daiteke.</p> <p>Elkarrizketaren momentu honetan Bertizko langileak hurbiltzen dira. Baita ere Miren etortzen da guregana eta berarekin hitz egiten dugu. Inkestak eta zentroen bisiten datuak eskatu ondoren, bueltatzen da bere behar eginetara.</p>
Galdera	Ikastetxeak bisita izan aurretik gelan ikusten al dute hemen landuko dutena?
Erantzuna	Batzuk bai lantzen dutela, gutxienez esaten diegu zerbaite lantzea: Nolako den parkea, nola etorri behar diren jantzita ... Hala ere nabaritzen da nortuk lantzen dute eta nortzuk ez.
Galdera	Eta bisita izan ondoren?
Erantzuna	Gero gu ez dugu egiten segimendurik. Bakarrik bisita egin aurretik kontaktuan jartzen gara azaltzeko pixka bat gainetik nolako izango den.
Galdera	Ze programa edo bisita mota eskaintzen dituzue?
Erantzuna	<ul style="list-style-type: none"> - 2h ekitaldia: Bueltaxka bat basoan zehar, jokuekin etabar. Baserria, txondorra lantzen da. Edukinak adinaren arabera moldatzen dira - Udazkena eta udaberriaren programa - 4h ekitaldia: baso mintegia eta lorategi botanikoa ikusten da. Bertan inguruko baso motak lantzen dira. Hemen lantzen da nola sortzen den landarea.

	<ul style="list-style-type: none"> - Baso kudeaketari buruzko bisita zentroa bisitatuz. Erdia zentroa eta beste erdia basoan egiten dena. <p>Lehen hezkuntzakoak badituzte lau aukerak hauek aukeratzeko. Gainera eskola etortzen bada gau pasatzen hemen refugio bat dago eta bertan pasadezakete gaua.</p> <p>Gero bisita ikusterakoan Iosunek hobeto azalduko dizu programa hau.</p>
--	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

Galdera	<p>Monikarekin oraintxe izan dut elkarrizketa baina lantzen duzuen bisita eta programaren inguruan galdera batzuk baditut oraindik. Importa zaizu bizpahiru galdera egiten badizkizut?</p> <p>Bisitan zenbait jolas eta jarduera ikusi ditut, ikusi dudan materialaz aparte, ba al duzue baliabide edo material gehiago irakaskuntzarako?</p>
